HOBEKUNTZAK Tramitagune-PLATEAN v2020_01 eta 02 – 2020ko ekaina

- Formularioen Toolkita:

  - Errepikapen-taldeen erregistroak lehenesteko funtzionalitatea hobetu da, orain taula bakoitzerako konfiguratu daitekeena.
  - Identifikazio-datuen eta prozeduraren datuen balidazioak eta dagozkien errore-mezuak birkokatu dira, orain dagokien lekuan kokatu direla.
  - Atzerriko herrialdeetarako posta-datuen baliozkotzeak berrikusi dira.
  - Erantzukizunpeko adierazpenen portaera aldatu da; orain, markatu gabe agertuko dira.
  - Eskaera gordetzeko botoiaren testua aldatu da erabilgarritasuna hobetzeko.
  - Formularioaren zirriborroa eta formularioaren txantiloia gordetzeko botoiak erakusteko/ezkutatzeko aukera gaitu da.
  - Eskaera presentzialaren formularioan "Nire profila" osagaia erakusteari utzi zaio.
  - Inprimakiari erantsitako dokumentuak gehitzeko funtzionalitatearen diseinua hobetu da, intuitiboagoa izan dadin.
  - Laguntzarako *tooltip* generiko bat gehitu da faktura-dokumenturako.
  - Erantsitako dokumentuetan sartutako sinaduren detekzioa gehitu da, haiei buruzko informazio guztia gordetzeko eta dokumentu horiek hobeto kudeatzeko espedientea izapidetzen den bitartean.
  - Toolkit-eko informazioa aldatu da datuen babesari dagokionez, Tratamendu Jardueren Erregistroko informazioa duen atal berri bat erakutsiz.
  - Izapidetze elektronikorako eta aurrez aurreko izapidetzerako formularioak bateratu dira, bete daitezkeen PDFen ordez Toolkitaren bidez sortutako web-formularioak erabiliz. Inprimaki horiek QR kode bat dute, Administrazioaren sarreran papera ezabatzea errazten duena.

- Espedienteen Kudeatzailea:

  - Izapidegileei jakinarazpenen hartzaileei buruz erakusten zaizkien mezuak hobetu dira.
  - Nahitaezkotzat jo da jakinarazpenari gutxienez dokumentu bat eranstea.

- Lotura bat gehitu da, posta bidezko jakinarazpenak bidali ondoren, jakinarazpenaren bidalketa-ofizioa inprimatu ahal izateko ("atxikita bidaltzen dut").
- Lotura bat sartu da posta-jakinarazpenen bilduman "bidalketak inprimatu" atalean, "Atxikita bidaltzen dut" dokumentua inprimatzeko, eta beste esteka bat ere sartu da, automatikoki sortutako jakinarazpen-dokumentua edo jakinarazi beharreko egintza jasotzen duen dokumentua inprimatzeko.
- Halaber, izapideen historian jakinarazpenaren "atxikita bidaltzen dut" delako dokumentua inprimatzeko botoi bat sartu da.
- Posta-datuak homogeneizatu dira agertzen diren pantaila guztietan.
- "Lurralde historikoa" zutabea sartu da erregistro-idazpenen atazen zerrendan.
- Itxaronaldien konfigurazioa hobetu da, itxaronaldien amaiera-data zehatza ezartzeko aukera emanez.
- Prozesu masiboekin lotutako botoiak Tramitaguneko familia guztien zerrendetan ezkutatu dira.
- Espediente-multzo baterako "*Ataza iradokitzeko*" prozesu masibo bat inplementatu da.
- Utilitate bat inplementatu da Datuak Babesteko Postontzien mantentze-taulan Organismoaren eremuaren arabera ordenatu ahal izateko.
- Negozio-datuak Excel-era esportatzeko funtzionaltasuna hobetu da; horrela, hemendik aurrera, zuzenketen datuak ere berreskuratuko dira.
- "Instrukzioaren historia" hobetu da, espedienteen izapidetzean izandako aldaketa guztiak islatzeko.
- Itxitako espedienteen datuen bistaratzea gaitu da.
- Sinplifikatu egin da dokumentuak eranstea ofiziozko hasieretan.
- Epeen kontrol bat sartu da Jaurlaritzaren Idazkaritzara egindako bidalketetan.
- Espediente-zerrenden hasierako karga desgaitu da administratzaile profilerako, informazio-bolumen handia eskuratzea saihesteko.
- "Herritarren interakzioa" familiako espedienteen atazak "ataza-erretilua" bistaratzean sartu dira, konektatutako pertsonak dituen izapidetze-ataza guztiak erakusteko, prozedura edozein dela ere.
- Espediente-kudeatzailearen zerrendetako bilaketa-osagaia ezabatu da.
- Espedienteak irekitzeko pantaila aldatu da, erabiltzaileak sortutako espediente-kodea baliozkotu ahal izan dezan.
- Prozedura batzuetarako deialdi-espedientea sortu ez delako oharra aldatu da, orain deialdi-espedienterik ez duten prozedura zehatzak erakutsiz.

- Ordezkarien erregistroa:

  - Kanal elektronikoa gaitu da erakundeek beren ordezkaritzak kudeatu ahal izan ditzaten.
  - Langile motako ordezkaritzak izapidetzeko kanal elektronikoa nahitaezkoa dela ezarri da, pertsona juridikoak direlako.
  - Erakunde bateko ordezkaritzen kudeatzailearen jarduera-eremura zabaldu da, erakundeak berak emandako ordezkaritzak ere berritu ahal izan ditzan, borondatezkoak nahiz langile motakoak.
  - Posta-helbideei lotutako informazioa berrikusi eta homogeneizatu da, gainerako aplikazioetan bezala.
  - Elkarteen ordezkariak inskribatzeko berariazko inprimakia ezabatu da, Ordezkarien Erregistro Elektronikoko kanal elektronikora bideratuz.
  - Ordezkarien Erregistro Elektronikoko dokumentuen Sarreren eta Irteeren Erregistroa gaitu da, bai herritarrek emandakoena, bai Ordezkarien Erregistro Elektronikoak berak sortutakoena.
  - Jarduketa-eremuen bistaratzea hobetu da, errazago bilatu eta hautatzeko.
  - Kontrol bat sartu da erakunde berean enplegatutako pertsona bati behin baino gehiagotan alta ematea eragozteko.

- Nire karpeta:

  - Jakinarazpen-kanala aldatzeko testua hobetu da.
  - Desgaitu egin da uko egiteko eta errebokatzeko aukera, "Nire profila" atalera kanpoko aplikazio batetik sartzen garenean.